

**Larunbat honetan,
Korrikako gin-kana**


**Inauteri Festa,
argazkitan jasoa**

**Eskubaloiko kadete
neskak, Euskal Ligan**

noaia

Hezkuntzako parte hartze prozesua amaitu da

**“Orain hasiko da
benetako lana”**



FRANTSES KLASEAK

- Frantzia oso gertu dagoelako
- Profesionalki garrantzitsua
- Frantses pixkat bazenekien baina ahaztu bazaizu eta berreskuratu nahi baduzu...
- Jubilatuentzat ere klaseak

AUKERA EDERRA DAUKAZU!

Asteazken zehar ordutegi ezberdinak
aukeran goizez edo arratsaldez

645 425 110 Usurbil

IVAN PEREZ
 ipfoto.es

Bordaberri 3
 943 573 775 - 657 795 379
 www.ipfoto.es
Argazki Denda

Ezkontzak - Haurrak - Jaunartzeak
 Book - Haurdunaldiak - Enpresa
 Iragarkia - Kamet Argazkiak
 Errebelatze Digitala

**INAUTERI FESTETAKO
 ARGAZKI GEHIAGO**
 www.noaua.com web orrian,
 argazkitegian

Zureak ere txoko honetan
 ikusi nahi badituzu, bidali
 argazkiak JPG euskarrian,
 erredakzioa@noaua.com
 helbidera

Albisteak iruditan

Auzolanari ekin diote Aginagan

Aldamioak jarrita, eta aurretik behar zuten prestakuntza jasota, auzolanari ekin zioten asteburuan Aginagan. Bertako eliza zaharra eraberritzea dute helburu. Erabilera anitzeko gune moduan egokitu nahi dute, besteak beste, San Praixketako jai toki eta garai batean hainbat aginagarren oroitzapenetan egongo den eraikin barrua. Hamabi lagun aritu ziren auzolanean joan den asteburuan. Eginkizun hauetarako ordutegi bat ere jarri dute; larunbatetan, goizez 8:30-13:00 artean aritzen dira, arratsaldez 14:30-18:30 artean. Igandetan, 8:30-12:30 artean. Lehen asteburuan, harriak bistara ateratzen aritu dira aldamiaoa jarria dagoen eliza barruko eremu guztian. Datorrenean, presiodun urarekin harriak garbitzeko asmoa dute. Guztia, auzolanean.



Hilabete batzuk barru, eraberrituta izango da Aginagako eliza zaharra.

Laburrean

Emakume baserritarren errealtatea aztergai

"Usurbilgo emakume baserritarren inguruko historia jaso, landu eta herritarrei transmititzea" da helburua, deialdiko oinarriek jasotzen dutenez. Otsailaren 26ra arteko epea dago lanak aurkezteko. Epaimahai batek hautatuko du, beka nori eman.

Ingeleseko mintza praktika EPA Lasarte HHI-n

Ingeleseko mintza praktika saioak egingo dira otsailetik ekainera bitartean. Astearte eta ostegunetan lehen taldea: 17:00-18:00. Bigarren taldea: 18:00-19:00. Informazio gehiago: 943 37 64 43 edo 943 36 66 08. 18 urtetik gorako edo-zeinek eman dezake izena.

Bihurri ludotekan izen-ematea irekita oraindik

Bertako kide egin nahi dutenek, bazkide berriek alegia, 30 euro ordaindu beharko dituzte. Jada bazkide direnek, 10. Izen emate epea martxora arte luzatuko da. Apuntatzeko, asteazken arratsaldetan, 17:00-18:00 artean garai bateko Gure Pakea elkarteko egoitzara gerturatu behar da.

noaqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil

943 360 321 /// elkartea@noaqua.com /// www.noaqua.com

Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Ana Aizpurua.

Aldizkariko koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Arantxa Zulaika,

publizitatea@noaqua.com.

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaqua.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,

Aizpea Aizpurua.

Banaketa: Olatz Rezola, Lurdes

Kamino.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldua, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Maialen Unanue

Jarrai dezala ikuskizunak

Negua hasi zela ez da hainbeste denbora pasa, eta hala ere, badirudi eternitate bat daramagula tenperatura hotzei aurre eginez. Lanera joan behar denean, berdin izaten da euria, elurra, kazkabarra edo trumoa ari badu ere. Baina ez esan ezetz, eguna joan, eguna etorri, eguraldi txarrarekin esnatu eta ohera joatea triste samarra da! Astelehenean Gipuzkoako egunkaririk salduenean irakurria: urtea hasi zenetik ordura arte (otsailak 11) 32 egunetan egin duela euria!

Eskerrak tartean inauteriak daudden! Beste baten azalean jarri eta egun batez, imaginazioa aske utzi eta gainontzeko azahazteko, besterik ez bada ere. Larunbatean giro

ederra izan zen Usurbilen: umore ona, moztorro landuak eta karroza ugari. Goiz zein arratsalde, txarangekalaitu zituzten kaleak. Bazkalorduan hasi zuen euria, eta oso ondo gogoratzen ez badut ere, esango nuke gutxitan gelditu zela. Frontoia aliatu ona izan zen arratsaldean.

Pare bat Olivia Newton John, beste hainbeste Michael Jackson, iPod musika erreproduktoreak, mariatxiak, hippiak... Kolore gutzietako moztorroak ikus zitezkeen kalean; musikarekin zerikusi gutxi zuen arren, Frank de la Jungla jantzitako bi mutil ere azaldu ziren, suge eta guzti. Baina moztorro bat errepikatu bazen, hori The Kiss musika taldearena

izan zen: hiru kuadrilla, gutxienez, atera ziren aurpegiak zuri-tu eta arropa beltzez jantzita. Karrozen artean bazen bat "Aho-tsa" izenekoa, eta haur zein heldu: traktorea hartu, eta alde bate-tik bestera ibili ziren eszenatokia eramaten.

Batzuek goizago, besteek beranduago, zurnago inauterietan parte hartu genuen guztiok egun ederra bizi izanaren sentazioarekin joan ginela etxera. Parranda usaina kendu, eta beste behin ere, moztorroak arma-ruan gordetzea tokatzen da orain, hurrengo urtera arte. Eta inauterietan, ikasketekin bezala gertatzen zaigu askotan: hurrengoan denbora gehiagorekin prestatu-

ko ditugula esaten dugu, eta momentua heltzen denean, zezenaren adarra uste baino gertuago daukagula konturatzen gara. Gauza batzuek ez dira sekula aldatzen.

Bukatu da festa, eta orain bakoitza berera itzultzea tokatzen da. Batzuk ikastera, besteak lanera, besteak ikastera eta lanera, eta beste batzuk lana bilatzera, edo ahal dena egitera. Balio dezate-la halako festek umoreari bere lekua emateko, eta arazoa dena izanda ere, konpon ditzagula umore pixka batekin. Errazagoa, politagoa, eta dibertigarriagoa baita bizitza umorearekin, irribarrekin. Jarrai dezala, ba, ikuskizunak.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Nerea Zinkunegi | Joxe Piñas | Idoia Torregarai | Unai Agirre | **Maialen Unanue** | Luis Aranalde | Ugaitz Agirre

Tapa eta aurkibideak prest

Agur esan diogu 2012 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2012ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok, azala eta aurkibidea doan jaso ditza-kezue NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, **Lizardin** edota **Lauroken** egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

2012



474-514 zenbakiak

Sarituak, gida baimena euskaraz ateratzeagatik



Buruntzaldeko udalek hartzen dute parte ekimen honetan. Aurreko astean egin zuten sari banaketa Andoaingo Udaletxean.

Buruntzaldeko Udalen ekimenez, 2012an gida baimena euskaraz ateratzen aritu direnek sari batean partehartzeko aukera izan dute. Andoaingo udaletxean egin zen zozketa aurreko astean. Gida baimenaren atal teorikoa euskaraz atera duten herritarren artean auto-eskola baikoitzeko matrikula-sari bat zozketatu da. Hauexek izan dira sarituak:

Andoain

Aritz Escudero Larralde (Bengoetxea autoeskola), Iñaki Alzuguren Almorza (Mendi autoeskola),

Astigarraga

Iker Uranga (Otamendi autoeskola).

Hernani

Yeelen Pellejero Arco (Otamendi autoeskola), Ander Goya Agirre (Hernaniko autoeskola), Borja Polaina Michelena (Lagunak autoeskola).

Lasarte-Oria

Haizea Bravo Bajo (Izarra autoeskola), Iker Elicegui Salsamendi (Múgica autoeskola), Saioa Gomez Tejeria (Lasarte autoeskola).

Urnieta

Diurka Ascunce Etxenike (Solozabal autoeskola).

Usurbil

Solozabal autoeskolakoa.

Batzorde berri bat izango du Udalak, kirol arlokoa

Batzorde informatzaile honetan, udal ordezkariak eta Kirol Patronatuko Zuzendaritza Batzordea osatzen duten ordezkariak parte hartuko dute. Hau da, "ikastetxeen ordezkariak, Kiroldegiko erabiltzaileen ordezkariak eta herriko kirol elkarteen ordezkariak".

2013rako udal aurrekontuak onartu eta erabakia Gipuzkoako Aldizkaria Ofizialean argitaratu ostean, batzorde informatzaile berri hau deitu eta osatu ahal izango da. Lanak aurreratzen joateko ordea, udal aurrekontuak behin betiko onartu arte itxaron beharrean, Mertxe Aizpurua alkateak adierazi zuenez, gobernu taldeak gai hau urtarilaren 29ko osoko bilkurara eramatea erabaki zuen. Batzorde informatzaile berri honen osatzea ere plenez onartu beharra baitago. Onarpen hau, hurrengo osoko bilkura baterako utzi beharrean urtarila amaieran aho bateko babes eman zion udalbatza osoak batzorde informatzaile berri honen osarari.

Udal diru laguntzak eskatzeko epea ireki dute

Herriko talde eta elkarteek, orain dute udal diru-laguntzak eskatzeko aukera. Epea zabalik izango dute martxoaren 1era arte, kultur edota nekazaritza eta ingurumen arloetan ekimenak antolatu asmo dituzten herri eragileek. Udal deialdi honek 2013an Usurbilen antolatu daitezkeen egitasmoak laguntzea du helburu. Iragarkia kaleratu du Udalak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Usurbil.net web orrialdean beharrezko informazioa eta eskaera orriak eskuratu daitezke.

Errazkin S.L.
igeltseritza orokorra
943 24 01 76 eta
649 435 470
errazkinsl@euskalnet.net
Oztaran auzoa 33, URNIETA


ARRANDEGIA PELLO
PUNTAPAX 7
943 36 21 64
USURBIL


Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

TXAPELDUN TABERNA
razioak
ogitartekoak
plater konbinatuak...
Muna Iurra 2, 943 11 82 53

2013 urterako udal aurrekontuak, behin betiko onartuak

Hezkuntza alorrari loturiko alegazio bat aurkeztu zen, baina ez zen onartua izan

Orain bai, behin betiko onartu ditu Udalak hasi berri dugun urte honetarako aurrekontuak. Astelehenean burutu zen ezohiko osoko bilkuran, urtarrilaren 9an hasierako onarpen bozketan izandako emaitza bera errepikatu zen; Bilduren eta Aralarren babesarekin aurrera atera dira aurtengo aurrekontuak. PSE-EE eta Hamakaibat aurrekontuen aurka agertu dira.

Hasieratik behin betiko onarpenera arteko bidean, jendaurrean egon den epean hain zuzen, herritar batek aurkezturiko alegazio bat egon da. Alegazio hau aintzakotzat ez hartzea erabaki zen bozketa berean. Hezkuntza alorrari loturiko alegazio bat zen, eskola publikoaren ingurukoa.

24.000 EUROKO PARTIDAREN ESKAERA

Hamaikabat taldetik Luisdari Ormaetxeak Aukera taldekoak aurkezturikoa zela berri eman zuen. Herrian eskola publikoa izateko bideragarritasun txostena egiteko 24.000 euroko diru partida eskatzen dute. “Ez da halakorik egiten den lehenbiziko aldia. (Udarregi Ikastolako) Hirugarren eraikinaren bideragarritasun diru kopuru garrantzitsua jarri zen. Hura ontzat eman zen moduan”, honako eskaera hau ere ontzat eman beharko litzatekeela adierazi zuen. Eskaera onartzen ez bazen, aurrekontuen aurka bozkatu zutela. PSE-EEko ordezkariak ere ildo beretik, aipatu alegazioarekin bat egin zuen.

Aralarretik Joxe Ramon Furundarena bozeramaileak ale-



Aste honetan egin den ez-ohiko plenoan onartu ziren behin betiko 2013ko udal aurrekontuak.

9.935.600 EURO

“Azken hamarkadako aurrekontu baxuena izango da 2013 urteari dagokiona”

gazioaren aurrean abstenituko zirela iragarri zuen. Aurreko Eusko Jaurlaritzak Usurbilen eskola publiko bat izatea euren lehentasunen artean ez zegoela esan arren, Gasteizko gobernura heldu berri den taldeak zer dioen argitu zain geratu nahi dute Aralarren.

“EZ DIRA PARTE HARTZE PROZESURA AGERTU”

Bide batez, Aralarrek gogorazti zuenez, herrian eskola publiko izatea defendatu duen Harrera taldekoak hileotan zehar burutu den hezkuntza alorreko parte hartze prozesura gonbidatuak egon direla gogorarazi zuen. Baina

arrazoi ezberdinengatik “ez dira agertu” zioen, eta pena zela.

Balorazio erronda borobiltzeko, gobernu taldeak hartu zuen hitza. Etorkizuneko hezkuntza eredu bateratua adosteko udalerrri honetan urrian martxan jarritako prozesua ekarri zuen gogora Alaitz Aizpurua zinegotziak. Aukeran taldekoekin hartu emanetan jarri zirela, baina euren erantzuna, Udalak antolaturiko ekimen honen harira osaturiko talde eragilean eta parte hartze prozesuko bileretan ezin zutela parte hartu izan zela.

“HEZKUNTZA ESKAINTZA ANITZA DA USURBILEN”

Bestalde, eskola publikoaren inguruko argibide gehiagoren berri eman zuen Aizpurua. Batetik Udala PSE-EE alderdiak agintzen zuen Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin harremanetan jarri eta bildu zirela, eta euren lehenta-

sunen artean ez zegoela Usurbilgo eskola publikoari loturiko egitasmorik epe motz eta ertainera. Gaineratu zuenez, “hezkuntza eskaintza anitza da Usurbilen” eta tartean, bada hezkuntza eskaintza publikorik. “Benetako publikotasuna defendatzen jarraituko dugu” iragarri zuten, eta baita “baliabideak bilatzen jarraituko” dutela. Hezkuntza Sailarekin ahalegin berria egin asmo dutela adierazi zuen.

Azken urteotako aurrekontu baxuenak

Urtarrilaren 9an hasieraz onartu zirenean aldizkari honetan berri eman bezala, guztira 9.935.600 euro izango ditu Udalak aurtengo gastuei aurre egin edota inbertsioetarako. Azken hamarkadako aurrekontu baxuenak ditugu 2013koak.

Hezkuntzako parte hartze prozesua amaitu da, lanketa ez

Hilabeteotako parte hartze prozesuaren ondoren, Hezkuntza Mahaia osatuko da

Hemen bukatuko du gu fase hau eta orain hasiko da benetako lana", zioten joan den astean Potxoenean burutu zen hezkuntzako parte hartze prozesuko zazpi garren eta azken bileran. Etor-kizunerako Usurbilgo hezkuntza eredu bateratua adosteko Usurbilgo Udalak urritik hona antolaturiko prozesua halere, ez da hemen amaitzen.

Lehen bileretan egoeraren diagnosia egin eta diagnosi hartan identifikatutako behar edo interesei irtenbidea aurkitzeko aukerak landu ostean, erabakitakoa martxan jartzeko pausoak diseinatzen aritu dira azken saioetan. Eta aurrera begira jarri ziren Potxoenean burutu zen otsailaren 6ko hitzordura gerturatu ziren herritar, eragile eta udal ordezkariak.

HEMENDIK AURRERA, ZER?

Taldeka bilduta, galdera honen bueltan eztabaidan eta ekarpenak biltzen aritu ziren parte hartze prozesuko kideak. Prozesuan zehar burututako lan-keta osoarekin orain, jendartera nola helarazi, norengana, zer urrats eman hemendik aurrera...Bilera sorta hauek eman dutena nola sozializatu, nola komunikatu eta aurrera begirako antolaketa lana marrazten hasi ziren aurreko aste-ko saioan.

Idea desberdinak planteatu zituzten. Taldeetako batean, prozesuan zehar eginiko lan-ketaren inguruko informazioa modu sinplifikatu eta erakargarrian aurkeztu beharra dagoela nabarmentzen zuten. Hezkuntzaren alorreko komunitatean



Aurreko astean egin zen parte hartze prozesuko azken bilera.

HIRU FASE

Urriaren 24an abiatu zen parte hartze prozesua eta zazpi bilera egin dira

ahalik eta gehien hedatzeko beharra ikusten zuten, bai herriko aldizkariaren bidez, baita inguruko hedabideen bitartez ere.

Prozesuaren emaitzak baka-ririk ez, prozesuaren beraren nondik norakoak azaltzeko beharra sumatu zuten beste taldeetako batean. Hedapen lana egitea lehentasuntzat jotzen zuten, eta horretarako, herri aldizkaria baliatzea, baita eskola bakoitzak zabaltzeko dituen bideak erabiltzea ere. Gune konkretuetan, aurkezpenak egitea ere planteatzen zuten. Amaitu berri den prozesuaren ostean, eta hezkuntza alorreko mahaia osatu arte, trantsizio bide hau egingo lukeen talde eragile bat egotea beharrezko-

tzat jotzen zuten. Helburu zehatzak eta txikiak finkatzen joatearen aldekoak ziren.

Hezkuntza mahaia lehenbailen osatu beharra dagoela zioten beste taldeetako batean. Bilgune hau Udalak dinamizatzea egoki ikusten zuten, eta proposamen zehatz bat ere egin zuten; prozesuaren berri emango duen txosteneko informazioa labur eskaintzeko beharra. Triptiko bat kaleratzea proposatzen zuten.

HEZKUNTZA MAHAIA OSATZERANTZ

Hor daude batzuen eta besteen proposamen eta ekarpenak. Urritik joan den astera arte, aurrekaririk ez duen bide bat jorratu da Usurbilen hezkuntza alorrean. Orain, prozesu honetako "motore" lana egin duen eragile taldea biltzekoa da berri. Eta hortik aurrera, aurre-ropausoak ematen joango dira. Une honetatik aurrera, hezkuntza mahaia osatu arteko bi-

deari ekingo diote.

ZAZPI BILERA, HIRU FASE

Hiru hilabete eta erdi inguru luzatu da hezkuntzako parte hartze prozesua. Urriaren 24an abiatu zen eta otsailaren 6an borobildu zuten. Alor honetako lanketa bera ez da amaitu halere, jarraipena izango du.

Haur sexualitatearen inguruko ikastaroa

Sexu Aholkularitza Guneak "Garaiz iristeko haur sexualitate ikastaroa" antolatu du datorren hilerako. Saioak martxoaren 6an, 13an, 18an eta 20an burutuko dira. Arratsaldez, 17:00-19:00 artean, Potxoenean. Izen ematea irekia egongo da otsailaren 28ra arte, sexuholku@usurbil.net helbidean edo 943 377 110 eta 679 919 516 telefono zenbakietan.



Elena Jimenez

SEXU AHOLKULARITZA GUNEKO ARDURADUNA

2013-02-15

Sexu Aholkularitza Guneak datorren hilean haur sexualitate ikastaro berri bat antolatuko du. Iaz haur sexualitatea guraso eta hezitzaileekin jorratzen hasi ginen eta ikastaroa motza gelditu zenez aurten gaiarekin jarraituko dugu.

Sexu Aholkularitza Guneak datoren belaunaldi berriengan errealtate berri bat sortuko duen heziketan oinarritutako prebentzio plana bultzatuko du.

Maiz, sexualitate gaiari heldu nahi diogunean gure gaztetxoek jada ez dute gurekin gaiaz mintzatu nahi. Nolabait berandu iritsi garela inpresioa dugu. Sarritan gure buruari galdetzen diogu: Noiz has gaitezke sexualitateaz hitz egiten? Nola? Nola erantzun beraien galderei? Zer komeni zaie? Zer behar dute? Noraino hitz egin? Zer kontatu neskei? Zer kontatu mutilei?

SEXU ESTEREOTIPOAK

0-11 urte bitartean, umek sexualitate eta harreman eredu nagusiak bereganatzen dituzte. Sexu estereotipoak: neskek eta mutilek egiten dutena, eta egin behar ez dutena, gustukoa izan dezaketena, harremanak eta dependentziak... Hau da, normaren arau nagusiak bereganatzen dituzte. Estereotipo zurrunk, aniztasuna eta gizakiaren ezaugarri biografikoaren

Garaiz Iristeko, haurrentzat sexuen heziketa



Ikastaroan izena emateko epea otsailaren 28an amaituko da.

kontra egin dezake. Umeen identitateak, sexualitateak eta pareko harremanak, minduz.

Bereziki garrantzitsua da gurasoekin edo bestelako atxikimenduridarekin lan egitea. 0-12 urte bitarteko umeentzako erreferente nagusiak gurasoak dira, beraz, sexualitate eta begirunezko harremanak eraikitzean, nahiz harreman erotikoeikiko espektatibak eta desiraren norabidea zehazteko orduan, gurasoek oso paper garrantzitsua jokatzen dute.

Gurasoak, elkarbizitza unitatearen erreferenteak eta eskolako erreferenteak bat egingo balute, benetako prebentzio bidea jorra genezakeela uste dugu.

Nerabezaroan eztanda egiten

duen sexualitatea eta harreman eredu aurreko urteetan egunez egun eraikitzen joan da. Horregatik bereziki garrantzitsua da sexuak, rolak, estereotipoak, desirak, ardurak eta eskubideak guraso, hezitzaile eta aurre-nerabeekin lantzea.

IKASTARO HONEN HELBURU NAGUSIAK

1. Gurasoak, hezitzaileak ... non kokatzen garen hausnartu, gure sexualitate estereotipoak, genero rolak, arriskuak, beldurrak, fantasmas ... ikusi eta aztertu, gure heziketa hauengatik baldintzatua baitago. Nahi gabe hori helarazten baitiegu.
2. Sexualitatea aberasten gaituen balore bat dela ikustarazi.

3. Seme-alaben, ikasleen, sexu ezaugarri orokorrak ezagutu.

4. Garai bakoitzean zer landu behar-ko genukeen ikusi.

5. Heziketarako klabeak eskuratu. Identitate anitzak, erotika, errespetuzko harremanak, ardurak eta eskubideak, potentzialak versus estereotipoak, kontzeptuak landu.

Ikastaroak egunerokoan lagungarri izan nahi du. Horregatik suertatzen diren egoera, galdera eta hizketaldi erantzun nahi dio.

GAI-ZERRENDAA

- Adin bakoitzean duten interesak.
 - Nola sortzen diren umeak azaltzeko aukerak.
 - Umeak eta famili mota ezberdinak.
 - Sexualitatearen inguruko hiztegia, hitz proposak.
 - Neska eta mutilen ezberdintasunak eta ezaugarri biografikoak.
 - Neskak egin behar dugula esaten dutena edo sexu estereotipoak.
 - Mutilek egin behar dugula esaten dutena edo sexu estereotipoak.
 - Komunikazioa eta sexualitatea. Zer esan eta nola entzun komunikatzeko.
 - Maitemina eta desira.
 - Plazera.
 - Masturbazioa.
 - Giza Erantzun Sexuala.
 - Prostituzioa.
 - Pornografia.
 - ...
- Ikastaroan parte hartuko dutenen nahien arabera hautatuko ditugu gaiak.

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

ALDAMU

KONPONKETAK
KALE NAGUSIA 10- atzekoaldea
943 372 795

URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
eraikuntzak-obra-erreformak

Martxoaren 23an helduko da Korrika 18

Ezagutzera eman dute antolatzaileek, martxoaren 14tik 24ra ospatuko den 18. Korrikaren ibilbidea. Euskararen aldeko lasterketa helmugara ailegatu bezperan igaroko da Usurbildik, martxoaren 23an, larunbatarekin. Aspaldiko partez arratsaldez gainera.

Antolatzaileek iragarri duteenez, Orio aldetik etorriko dira lasterkariak. 18. Korrikak 15:50 aldera zapalduko du Aginaga. Euskararen aldeko lasterketa 16:33 inguruan iristekoa da Usurbila. Kaxkotik Santuenearako bidea hartu eta handik Zubietara joko du gero, lekukoa Lasarte-Oriak hartu arte.

Aipatu moduan, biharamu-nean, hilaren 24an iritsiko da Korrika 18 helmugara, Baionara, hamar egun lehenago Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkeetik abiatu eta Euskal Herri osoa zeharkatu ostean, 2.000 kilometro baino gehiagoko ibilbidea osatu eta gero hain zu-



Duela bi urte, Korrika Usurbildik pasa zen garaian.

OTSAILAREN 19AN

Korrika Batzordearen bilera, 20:00etan Etumeta AEK euskaltegian

zen. Ibilbideari lotuta, berrikuntza gisa, aplikazio bat pres-

tatu dute antolatzaileek, udalerri bakoitzean Korrika noiz eta nondik igaroko den ezagutze-ko. "Eman euskara elkarri" lemapean ospatuko da Korrika 18, euskara ikasleak omenduko dira edizio honetan. Informazio gehiago: www.korrika.org

KORRIKA BATZORDEAREN BILERA

18. Korrikari begira Usurbilen osatu den Korrika Batzordea berriz bilduko da otsailaren 19an, datorren asteartean, iluntzeko 20:00etan Etumeta AEK euskaltegian.

Larunbat honetan, Korrikaren aldeko gin-kana

1 8. Korrikaren harira Euskal Herri mailako gin-kana bat antolatu dute; "Lekukoaren Bila Ginkana". Egunotan udalerrietako kanporaketak jokatu dira, tartean, Usurbil eta Lasarte-Oriakoa. Larunbat honetan, arratsaldeko 17:00etan hasita Usurbilen. Bi udalerriotan, sei talde osatu dira

guztira. Lehiakideek herrian zehar, hainbat proba burutu beharko dituzte. Gin-kana antolatzeaz Itaya Gazte Asanblada arduratu da.

"Frogei dagokionez, denetarikoa izango dira, esfortzu fisiko apur bat, talde lana, punteria ona izatea, koordinazioa, oreka, trebetasuna, lotsarik ez izatea... eskatzen dute-

nak. Joko bakoitzak ondo egin ostean pista bat jasoko du talde bakoitzak, pista honek beste leku batera eramango du taldea eta bertan beste jolas bat proposatuko zaie. Jolasa egin ostean berrirori beste pista bat jasoko dute lekukoa aurkitu arte. Talde irabazlea, proba guztiak lehena-go amaitzen dituen taldea izango da",

berri eman dute gin-kanaren antolatzaileek.

Eskualde eta udalerrietako lehen saioen ostean, Gipuzkoa mailako kanporaketa ospatuko da martxoaren 24an, Baionan. Korrika 18 helmugara ailegatuko den egunean hain zuzen.


BENTA TABERNA
HANBURGESAK
Oilasko erreak
Ogitartekoak
943 36 93 05

Andoni Errazkin
Xukin
igeltzeritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
663 08 76 71 • 943 24 34 65

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

TAXI
607 92 87 70
943 00 44 83
Angel (24h) **USURBIL**

Joko asko eman zuen “musikak”



Inauteri jairako gaia zen: musika. Argazki hauetan ikusiko duzuen moduan, joko asko eman zuen (Argazkiak: Maialen Unanue, NOAUA!).

Kolore festa Udarregi ikastolan



Otsailaren 8an ostirala, maila guztietako ikasleek hartu zuten parte kiroldegiko jaialdian. Zubietako Eskola Txikiko ikasleak rock-eroz moztarrotu ziren.

Elvis Presley eta John Lennon, bisitarien artean



Udarregiko nahiz larunbateko argazki gehiago, www.noaua.com web orrialdeko Argazkitegian topatuko dituzue.

Kultura, nekazaritza, ingurumen zein gizarte arloko diru-laguntzak

2013 urtean zehar burutu nahi diren egitasmoek Udalaren diru laguntza jaso dezakete. Kultura, Nekazaritza, Ingurumen nahiz Gizarte arloetako laguntzen deialdiak dagoeneko eman dira ezagutzera. Kasu guztietan, eskaerak aurkezteko epeak laster itxiko dira.

Kulturan, Nekazaritzan nahiz Ingurumen arloko egitasmoei zuzendutako diru-laguntzak eskatzeko garaia da.

Usurbilen aipatu arloetan ekimenak egiten dituzten pertsona juridiko zein fisikoak eta erakunde publikoak zein pribatuak aurkeztu ahal izango dira deialdi honetara.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta daude deialdi hauek. Deialdiak eta eskaera orriak eskuragarri daude www.usurbil.net web



Kultur arloko diru-laguntzak eskatzeko epea martxoaren 1ean amaituko da.

orrialdean. Hiru arlo horiei dagozkien diru-laguntzak eskatzeko epea **martxoaren 1ean amaituko da**.

GIZARTE ZERBITZUEN ARLOKOAK

Elkartek, bestelako erakundeek edota norbanakoek udalerrian gizarte zerbitzuen arlo-

an egiten dituzten ekimenak bultzatu eta sustatzeko asmoz, diru-laguntza deialdia egin berri du Usurbilgo Udalak. Diru-laguntza hauek eskatzeko **epea martxoaren 4an amaituko da**. Deialdiak eta eskaera orriak eskuragarri www.usurbil.net web orrialdean.

Datorren astean, Kolonbiari buruzko hitzaldia Usurbilgo gaztetxean

Iazko azaroan ospatu zen V. Elkartasun Astea. Mehatxupean bere sorterria utzi behar izan duen Luis Plaza Velez sindikalista kolonbiarrak hitzaldia eskaini zuen. Lehenago, harrera egin zitzaion udaletxean, Usurbilgo Elkartasun Taldeko kideak eta udal ordezkari bat bertan zela. Datorren astean, gure artean izango da berriz ere. Eta beste hitzaldi bat eskainiko du Usurbilgo Gaztetxean.

Elkartasun Taldeak eta Gaztetxeak antolatu dute hitzaldia, baina edizio hau interak-

an, zehazteke zegoen otsailaren 23an edo 24an izango ote den. Datorren asteko NOAUA!n emango ditugu xehetasun gehiago.

Azaroan, Usurbilen izan zenean, Luis Plaza sindikalista kolonbiarra elkarriketatzeko aukera izan genuen. Bere sorterrian martxan den bake prozesuaz honela hitz egin zigun: "guk prozesuaren iraupenari muga bat jarri behar zaiola diogu. Nahikoa izan dadin, elementu batzuk argitara ateratzeko. Hori lortzeko, prozesua finkatu eta jarraitzea ahalbidetuko du. Prozesuak, gizar-



Luis Plaza Kolonbiako CUT sindikatuko ordezkaria da.

te zibilaren parte hartzearekin amaitu beharko luke", adierazi zigun Luis Plazak.

Kontzertu gaua eta salsa tailerra Gaztetxean

Ostiral gau honetarako, 22:00etatik aurrera salta tailerra antolatu dute Usurbilgo gaztetxean. "Ondo pasa eta gorputza astintzeko gogoz al zabil-tza? Hona hemen aukera paregabea!", adierazi dute antolatzaileek. Tailerra "ondo pasa nahi duen edonorentzat" zuzendua dago. Prezioa, doakoa. "Azkeneko salsa gehiago dantatzeko gogoz geratu ginez, hona hemen berriz ere Latino-amerikako erritmo beroetan trebatzeko beste aukera bat. Kolonbiako, Nikaraguako eta Kubako irakasleak izango ditugu, eta denontzat debalde izango da. Zer ekarri behar den? Dantzarako eta ondo pasatzeko gogoia baino ez, eta noski, lotsak etxean jasota utzi!", luzatu dute gonbita gaztetxeok.



Ostiral honetan egingo da ikastaroa, 22:00etan hasita.

Larunbat gauerako bestalde, kontzertu gaua antolatu du Usurbilgo Gaztetxeak. 23:00etatik aurrera, Sarkor, Tooth eta Mörghead taldeek joko dute.

JAZZ KONTZERTUA

El Inigualable Grupo Combo jazz taldeak joko du Gaztetxean, otsailaren 24an 19:00etan hasita. "Beraien musika jazzaren koordinadatan lerrokatzen dute. Animatu musika zaharraz gaztetxe berrian goatzera!", luzatu dute gonbita.

Borrokatzen ez baduzu, gero ez kexatu!

Aspaldiko partez zuekin, hemen duzue berri ere Agaya-ren atal berri bat. Gaurkoan gure helburua euskal gizartea eta batez ere gazteria pairatzen ari den une gogorrari buruz hitz egin, eta geuk, gazte kolektibo bezala, honen aurrean, zer egin dezakegun hausnartzea izango da. Baina, are gehiago, gazte izanagatik bakarrik, eta kolektiboen parte izan gabe ere, ZUK, gazte, zer egin dezakezun.

Baina, noraino kolpatu du Hego Euskal Herriko gazteria hain famatua bilakatu den Krisi (edo iruzur) ekonomikoak? Gure baliabide eta eskubideak murriztuak izan al dira?

Gure erantzuna bai borobil eta ukaezina da. Estatu espainiarrak azken urteetan buruturiko gestio katastrofikoaren ondorioz, AEB-etatik etorri zen finantza krisia inon baino gehiago ari gara pairatzen. Gurean, Finantza krisia, ezaguna den burbuila inmobiliarioari batu zitzaien eta konbinazio arriskutsu honek gaur egun sufritzen ari garen egoera ekonomiko kaxkarrera bultzatu gaitu.

ZERGA GEHIAGO ORDAINDUZ, ESKUBIDE GUTXIAGO IZANEZ

Honen aurrean, Espainiar Estatuaren erreskate famatua delakoa eskatzeko puntura heldu da. Baina laguntza ekonomiko ikaragarri honen truke zein baldintza bete behar ditu Espainiak? Inplikazioak dakartzela honek guretzat? Azalpenetan gehiegi sartu barik (gaia potoloa baita), eta azalpenak nahi dituenak gure e-mailera idatz dezala, 2013rako BPG-ean oinarrituriko defizit publikoa gaur egun dagoen %7.5-etik, 3.5era jaitsi beharrean ikusi da Espainiako Gobernuak. Honek zer esan nahi du? Sinpleki, Espainiak 30.000 milioi euro lortu behar dituela. Eta nondik irtengo da diru hori? Erantzuna erraza da: denon poltsikotatik. Eta nola? Zerga gehiago ordainduz, eskubide gutxiago izanez.

Gazteok pairatzen ditugun murrizketetan sakonduz, hezkuntzan, enpleguan (lan erreforma ahaztu gabe) eta etxebizitzaren arloan eginikoak oinarrian daude.

Aurrekontuetan, hezkuntzan %21,9ko murrizketa egin da eta unibertsitate publikoetako matrikulen tasak %15-25 artean igo dira, honi, agindu diren Beken jaitziera batzen badiogu, emaitza arriskutsuak irten daitezke: Hezkuntza publi-



Ikasleak, murrizketen aurkako manifestazio batean (artxiboko irudia).

koaren pribatizatze larriena. Gainera, soldata gutxiago ordaintzeko helburuarekin, ikasgela bakoitzean egon daitezkeen ikasleen kopurua %20 igo da. Hau da errealitatea: gero eta ikasle gehiago, baina gero eta irakasle gutxiago. Hezkuntza bigarren mailan uzten duen Estatu batean bizi garela ukatzeak ezinezkoa dirudi. Ezin aipatu gabe utzi hezkuntza zentralizatzeko egiten ari diren saiakerak. Guztiok izango dituzue gogoan De Wert Ministroak duela hilabete batzuk egindako deklarazioak, ikasle katalanak “*españolizatu*” egin behar zirela esanez. Adierazpen bortitz honi jarraituz, Kongresuak Erkidego Autonomoetan dauden ikastetxe publikoetako edukien %75 erabakitzeko aukera emango dion dekretua ere onartu du.

Enpleguaz hitz egiteak benetan goibeltzen gaitu. Egoera iluna baina ilunagoa da, Hego Euskal Herriko gazteon langabezia Estatuko baxuena den arren (%33 ingurukoa, Espainiar Estatuko %55aren aldean), erritmo azkarrean igozen ari da.

Estatuak lan eremuan dagoen egoerari irtenbide bat emateko, Lan Erreforma berri bat inposatu zuen pasa den otsailean. Erreforma honi esker, patronalek botere osoa eskuratu dute, eta langileak kaleratzea inoiz baino merkeagoa bilakatu da.

ERE-AK, %110 IGO DIRA

Datu beldurgarriak utzi dizkigu honek: 2012ko urtariletik abuzturako epean aurrera eramanez diren Lana Erregulatze Espedienteen (ERE famatuen) kopurua

2011n epe berdinean egin zirenekin alderatuz, %110eko igoera izan dute. Portzentai beldurgarria oso.

Gogorra eta tristeia baita ere gazteok etxebizitza duin bat eskuratzeko dugun ezintasuna, BOE batera sartzea ere utopiatzat ikusten dugu askok eta askok. Espainiar Gobernuak egoera honen aurrean, eta “laguntzeko” helburuarekin, etxebizitzako gastuan %31,7ko murrizketa ezarri du, etxe bat erostegatik egiten zen kenkaria ere bertan behera utziz 2013tik aurrera.

ZER EGIN DEZAKEGU GAZTEOK?

Zer egin dezakegu gazteok, beraz, bizitzeko tokatu zaigun aro ilun honen aurrean? Gazte Asanblada honen iritzia argia da: kalera irten eta gure eskubideen alde borrokatu. Ezin gara geldirik egon, begira, ezer gertatuko ez balitz bezala. Oraindik bizirik ditugun eskubideak baliatuz irauli behar dugu gure egoera: manifestatu, greba egin, bozkatu, bildu... Gainera datorkiguna ez da inolako txantxa, etxegabetzeen drama bezalakoak gure egunekotasunaren zati bihurtu dira. Beraz, gazte, utzi alde batera beldurrak eta berekoikeriak, begiratu etorkizunari zuzen begietara. Historiak frogatzen digu gazteok batuz gero, gizartea bera eraldatzeko gaitasuna sobera dugula!

Gogoratu: Borrokatzen ez baduzu, gero ez kexatu!

**Belar Txarrak Errotik!
Euskal Herriko gazteria aurrera!**

Urrutira joan gabe, ibilbide zoragarriak ditugu inguruan



30 lagun elkartu ziren igandeko irteeran. Zumaiaiko flysch-aren aldamenean ageri dira.

Astea euritsua izan zen. Baina igandean atsedenaldira moduko bat eman zen eta ederki asko gozatu zuten Debatik Zumaiarako ibilbidea osatu zuten lagunek.

Goizeko itsasbeherak flysch-aren ikuspegi paregabeaz gozatzeko aukera eman zien. 30 lagun batu ziren igande goizeko zeharkaldia egitera. Aldameneko argazkia igortzearekin batera,

ohar hau ere helarazi digute Andatza Mendizaleen Kirol Taldeko kideek: "Debatik Zumaiara egin dugun ibilbidearen argazkiak ikusgai dituzue web orrian, Argazkiak atalean sartuta".

Zumba fitness ezagutzeko aukera, Oiardo kiroldegian

Zer da zumba fitness? "Fitness dantza klase bat dugu. Merengue, salsa, reggaeton, cumbiaren bidez dantza eta kirola egiten da. Intentsitate baxu eta altuak konbinatuz", hala adierazi digute Oiardo kiroldegian ikastaro hau sustatzen ari direnek.

Interesa dutenek nola zalan-tzaren bat dutenek, aukera pa-

regabea dute otsailaren 26-28an frogatuko, doan, arratsaldeko 17:30ean Oiardo kiroldegian. "Gustuko baduzue eta taldea osatuko balitz, ikastaroa martxoan hasi eta ekaina bitarte iraungo luke. Animatu probatzera", azaldu digute.

LILATOIAN BAZKARIA

Martxoaren 3an igandea ospatuko da Lilatoia lasterketa Do-

nostian. Herritar batzuen ekimenez, bazkaria antolatu dute egun horretarako. Lasterketan atera ondoren elkartuko dira Artzabalen bazkaritarako.

Hori bai, aldeztu aurretik eman behar da izena jabetxean bertan. Azken eguna: otsailak 28. Menua 22 eurokoa izango da. Baina izena ematerakoan 7 euro aurreratu behar dira.

Pilota partidak

Otsailak 16, larunbata

9:30 Alebin mutilak Futbol 8 Udarregi 6B.

13:00 Kadete areto futbola (Oiardo Kiroldegian).

15:30 Regionalak.

17:30 Neskak.

Otsailak 17, igandea

10:00-13:00

Alebinak futbol eskola.

Pilota partidak

Otsailak 15, ostirala

20:00etan Aginagan

UDABERRI TXAPELKETA

Eskuz binaka jubenilak 3. maila

USURBIL (J. Irazusta-M. Portuarrume)

ALLERRU (Lezo)

Paleta Goma nagusiak 2. maila

USURBIL 2 (X. Murua-I. Esnaola)

LOIOLATARRA

Otsailak 17, igandea

12:00etan Usurbilen

UDABERRI TXAPELKETA

Eskuz binaka alebinak

USURBIL (J. Zumeta-I. Galarraga)

ATAUN 2

EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA

Eskuz binaka nagusiak

USURBIL (X. Santxo) (I. Artola)

AURRERA SAIAS

Eskubaloitako partidak

Otsailak 16, larunbata

9:00 Benjaminak:

Lagunarteko topaketak.

11:30 Infantil neskak:

Udarregi B Usurbil - Eibar

17:30 Kadete mutilak:

Usurbil KE - Orkli Ordizia

19:00 Senior mutilak 2. Nazionala

Atez Ate Usurbil - Egia

Partidak Oiardo Kiroldegian.

Otsailak 17, igandea

10:00 Infantil neskak:

Udarregi C - Aloña Mendi A

11:30 Kadete neskak:

Usurbil KE - AGS Elgoibar

Partidak Oiardo Kiroldegian.

www.noaua.com

USURBILGO ATARIA

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L



teilatutak eta fatxadak

943 37 38 79 - 620 80 01 86

Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldea), LASARTE-ORIA

Eskubaloiko kadete neskak Gipuzkoan txapeldun, eta orain Euskal Ligan

Jubenil mutilekin batera, partida bakar bat galdu gabe, eskubaloiko kadete nesken taldea ere Gipuzkoako txapeldun dugu. Euskal Ligako fasea jokatzeko dabilta asteotan, Espainiako Txapelketa begira jada. Iristen diren lekura iristen direla, lanerako gogoz eta ilusio handiz, taldeko entrenatzaile Nerea Agudok NOAUA!ri adierazi dionez.

Aurkeztu ezazu taldea.

Nerea Agudo. Hamar jokalarikoa, gutxi egia esan. Gainera jende faltagatik, jokalarierdiak bi jardunaldi egiten egon dira kadete eta jubeniletan. Gutxi izan arren, denak datoz entrenamendu saioetara, partidetara, eta hori eskertzekoa da.

Meritu gehiago du oraindik. Partidarik galdu gabe Gipuzkoako txapeldun baitzarete.

Partidak banan bana irabazten joan eta Euskal Ligara igo gara. Lehen partidaren berdinketa izan genuen. Esan beharra dago gero, berdindu genuen talde horren aurka berriz jokatu eta hamahiru golengatik irabazi dugula. Denboraldi hasieratik alde sumatzen da. Konfiantza dago orain.

Noiz igo zineten eta nola bizi izan zenuten ueña?

Legazpiko neurketan izan zen, asteen zehar. Guraso guztiak etorri ziren. Partidak oso erraz irabazten joan gara, baina Legazpi iritsi zen. Hori zen gure arerio nagusia. Oso ondo prestatu genuen partida halere, eurak oso pozik zeuden. Bageneien neurketa hura irabazita, beste aldaketarik ez bazen, Euskal Ligan izango ginela. Lan asko egin zuten aste hartan. Motibatuak zeuden, gogo askorekin. Hara joan ginen. Beraiek oso ondo, guraso guztiak eserlekue-



Lanerako gogoz eta ilusioz beterik dago talde osoa.

NEREA AGUDO

“Asko inplikatzeko ari dira denak. Familia handi bat osatu dugu”

tan, giroa ezin hobea. Hiru entrenatzaileak joan ginen. Irabazi genuen unean gogoratzen naiz denak negarrez zeudela pistan eta Euskal Ligan ginela konturatu ginen, eta ahal gurela jabetu ginen. Jokalariek dioten moduan, amesten jarraituz pixkanaka aurrera goaz.

Orain Euskal Ligan, noiz arte?

Euskal Ligan hiru taldeko bi multzo daude. Multzo batean edo bestean jokatu erabakitze-ko, bi neurketa jolastu ditugu Durangoren aurka, bat etxean bestea han. Biak irabazi genituen. Zuazoren aurka jokatzeko tokatu zaigu, talde gogorrena. Euskal Ligan lehen postuan geratu dira eta ondo gainera. Eta gero Elgoibar eta Bera Bera ditugu. Hauek printzipioz gure maila baino altuxegoa dute. Halere, gogotsu eta ilusionatua dago taldea. Irabazi nahi dugunak gogor saiatu beharko du.

Espainiako txapelketara joateko aukera duzue?

Liga martxo erdialdera amaituko da. Espainiako fasea apirila hasiera edo erdialdean izango

da. Ilusio guztiarekin gaude, beldurrik ez dugu. Espainiako txapelketara iristen bagara oso ondo, eta bestela ere oso ondo baita. Gure aurtengo helburua igotzea zen, talde eta klub bezala. Biak lortu ditugu. Beraz, hemendik aurrera gertatzen zaizkigun gauza on guztiak, ongi etorriak izango dira.

Klub mailan lorpen gehiago izan da azken aldiak...

Legazpin, neure entrenatzaile ohi bat zegoen eta hark esaten zidan, aspalditik Usurbilen, neskak hortxe zeudela. Egia esan bai. Oinarri bat badago azpitik. Zuzendaritza talde berri bat dago duela bi urtetik, asko inplikatzeko ari dira. Guraso piloa sartu da baita, piloa inplikatuta dira. Jokalari pare baten gurasoek ere nik ezin dudanean delegatu lanak egiten dituzte. Laguntza hori egoteak lana errazten du. Babesa ematen du aurrera jarraitzeko. Familia handi bat osatu dugu.

Denboraldia nola bukatu nahi duzue?

Gauza bakarra eskatzen dut, dauden hamar jokalariek denboraldia amaitzea, lesionatu gabe denek Euskal Ligan jokatze-ko aukera izan dezatela. Taldeak ez du goia jo oraindik. Goazen gora.

“Behingoz klub bat gara eta kate bat dago”

Gainerako taldeetan zer eragin dute halako lorpenek?

Nerea Agudo. Denboraldi hasiera eromena izan zen, oso jokalaririk gutxi. Kadete eta jubeniletan jolas- behar izan dute. Beldur pixka bat banuen ia nekatuko ote ziren, baina behin ere ez dute ezer txarrik esan. Beti irribarre batekin. Seniorrak orain kadetei begiratzen diete eta eredu direla diote. Bai senior, jubenil eta atzetik datozenentzat. Beti daude lanean, eta irribarrez. Eta horrek asko esan nahi du, gustura daude. Atzetik datozenek, adibidez infantilek, liga honetan asko lagundu gaituzte. Lau infantil egon dira gurekin, eta eskatutako guztia eta gehiago eman dute. Hori orain, kadeteak erreferente bezala ikustea, hori da lortu nahi duguna. Aurten lortu da, infantilak kadeteetan jolastea, kadeteak jubeniletan eta jubenilak seniorretan.

Kate bat osatu da?

Behingoz klub bat gara eta kate bat dago. Lehen jokalaritza taldeak elkarren berri ez zuten, ez zegoen loturarik. Aurten hori lortu da, lotura hori dago. Kadeteen neurketa batean infantilak edo jubenilak partidak ikusten egoten dira. Lotura hori lortu dugu eta hori lanean jarraitzeko oso interesgarria da.

Gipuzkoako selekzioa deituak

Infantil nesken eskubaloitza taldeko Josebe Blazquez Gipuzkoako selekzioarekin entrenatzeko deitu dute. Otsailaren 24rako, Oñatiko Zubikoa Kiroldegian. Eneko Iribar ere Gipuzkoako selekzioan entrenatzeko deitua izan da. Igande honetan, Donostiako La Sallen.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Pisua salgai Munalurran, guztiz berritua, 1. pisua igogailu gabe, +60metroko trasteroarekin pisu azpian. 2 gela, aire egokitua, kale-fakzioa, parket... ikusgarria. 220.000 euro. 636393237

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbar handia. Lehen 240.000 euro, orain 216.000. 662 056 899

Pisua salgai Txaramuntan. Berria, bi logela, egongela, terraza ikusgarria. Trastero handia. 276.000 euro. 615 720 245.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezeta-tan (216.000 euro inguru)

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Etxea salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m lur saillean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ema-

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaia.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, arratsaldeko 18:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

ten du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbarekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5. 3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

90 m pisua salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua, bizitzaren jartzeko. 699680265. 32 milioi pezeta.

Etxebizitza bat salgai Usurbilen. 60 metro. 3 gela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. 943 37 26 33 - 943 36 22 15.

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabalak, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berritua, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

Alokairuan

Etxe bat alokatzen da Santuenean. Tel. 679 366 415.

Alokairuan dagoen etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. 661568471

Pisua edo pisuko gelak alokatzen dira Kontseju Zarra kalean. Pisu eguzkitsua, kanpoaldera ematen du. Alokairu prezioa: 700 euro (pisu osoa), 300 euro gela bakoitza. 650 262 101 / 678 697 213.

Logela bat alokatzen da Usurbilgo pisu berritu batean. 657 700 408

Bi solairuko etxea alokairuan Kalezarren. Baratzia egiteko aukera. 665 720 913.

Pisua alokagai Santuenean, berria, dena kanpoaldera, argitasun handikoa. 67 7471 648.

4 logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 659389707 nerezabala1@gmail.com

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346

Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318

Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.

85 metroko etxebizitza alokatzen dut kaxkoan. 3 gela, 2 terraza eta trasteroa. 616064059 (gauetan deitu).

MOTORRA**salmenta,
garajeak**

Garaje itxi bat alokagai Artzabalen, frontoi ondoan. 647120253

Peugeot Satelis markako motoa salgai. 4.000 km. Urte eta erdi du. 627 342 464.

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

Txaramunto kalean garaje itxia alokatzen da. 620 416 963.

1999. urteko Ford Mondeo familiarra salgai, 1.500 eurotan. Egoera onean. 652 706 518

Garajea salgai Txaramuntan. 15 metro karratu, 28.000 euro. Negozia garria. 667 715 075

Seat Ibiza salgai. 1004 TDI. 2004. urtekoa. Oso egoera onean. 2.000 euro. 667 715 075

Karbonozko bizikleta bat salgai. Ultegra taldekoa. Prezio ona. 600 244 126.

Baju komertziala salgai Atxegalden. 50m2, etxebizitza lizentzia ateratzeko aukera. 659389707 nerezabala1@gmail.com

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Matematikako klase partikularrak ematen ditut. (Goi mailako ingeniaritza ikasketak egin ditut). Tel. 672 427 870.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

Mutil katalan gazte euskaldun berri bat eskaintzen da, adinekoak zaintzeko edo katalanera-ko klaseak emateko. 677 290 212 (Roger).

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte ardura-duna, arratsaldeetan 6-12 urte-tako umei, inglesa irakasteko

prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia daukat. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrak emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Usurbilgo neska euskalduna naiz, goizez nahiz arratsalde, klase partikularrak emateko zein haurrak zaintzeko prest. 688 661 997 / 943 365 005".

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrak emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskaldun bat, haurrak zaindu edota klase partikularrak emateko LH-n nahiz DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardinertza lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanerako, tabernan lan egiteko edo enkarguak egiteko. Tlf.: 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo interna moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka

**Zorionak Nahia!**

Otsailaren 19an gure etxeko printzesak, 6 urte beteko ditu. Muxu handi bat Zuhaitz eta etxekoan partez.

**Zorionak Mañel!**

Otsailaren 14an 5 urte beteko dituzu. Muxu handi bat familiaren partez! Prestatu txokolatezko bizkotxoak!

**Zorionak Aner!**

Otsailaren 12an lau urte bete dituzu. Aginagako eskolan ospatuko dugu denok elkarrekin. Muxu bat zure lagunak eta andereinoaren partetik.



Zorionak bikote! Anderrek otsailaren 8an 15 urte, eta Ionek otsailaren 14an 17 urte bete dituzue. Larunbateko afaria zuen kontu! Familiko guztien partez muxu asko asko biontzat!

Ohar, zorion-agur, jaio edo hildakoen berri emateko azken eguna: asteartea, eguerdiko 11:00etan erredakzioa@noaia.com

lan egingo nuke. 609632030.

Zerbitzari edo sukaldari lagun-tzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia izan eta arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da, jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldari lagundu edo baserriko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko. Interna moduan ere bai. 673 445 903.

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Umeak zainduko nituzke arratsalde edo zerbitzari moduan lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.

Neska euskalduna eta usurbildarra, eta arratsaldetan haurrak zaintzeko zein klase partikularrak emateko prest. Atzerriko Hiz-

kuntzako Majisteritzan eta Haur Hezkuntzan diplomatua. Badut esperientzia. 652712099.

Lan eskaintzak

Usurbil aldean komertzialak behar dira. Seriotasuna eta baldintza onak. 943 440 487.

Sukaldari bat behar dugu asteburuetan, Xarma tabernan. Interesatuak deitu: 943 368 771.

Pizza banatzailea behar da Usurbilgo taberna batean. 943374330

BESTELAKOAK

Setter-spaniel nahasketako txakurra galdu da Usurbilgo kaxkoxan. Chip-a dauka eta txuri du izeina. 608 60 32 52.

2. eskuko josteko makina bi salgai. Modu onean. 943 36 32 01.

Karbonozko bizikleta erdi berria salgai. Prezio ona. Tel. 600 244 126

Txamarra eta jertse bat galdu dira Abegalden. Udarregiraigo eta jertseko eskailera ondoan. 660779160

Su egurra salgai. Haitza eta

Pagoa. (Etxera eramaten da). 667 232 300.

Gasze usurbildarra, ordenagailuko klaseak etxeetan emateko prest. 943 360 503/672 718 721.

Eskuz egindako egurrezko pala txiki bat galdu genuen herriko frontoian. Norbaitek aurkitu badu, itzultzea eskertuko genioke. Tel. 639 469 577.

Maxi-Cosi Cabriofix eserlekua salgai gehi Maxi-Cosi EasyFix basea, kotxearen Isofixean lotzeko. 130 euro: 657795378

Usurbilgo gaztainak salgai. 635 709 267 (Iker)

Hainbat produktu erabili gabeak salgai: uretako aleta berriak, mendiko bota teknikoak ("La Sportiva"), patinak (44 neurrikoak), eta erabiliagoak dauden "esku libreak". 679 471 831 (Jon)

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Etxean egindako ardi gazta saltzen da. 687 348 223

Hemengo babarruna salgai: 637 974 994.

Zaldi bat jartzeko lursaila alokatuko nuke 616260 451

Hemengo intxaurrak salgai. 943 67 11 60.

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

TRUKEAN, OPARI

Angora arrazako 10 katu txiki opari. 628 745 443.

Ordenagailuak, bulegoetako eserlekuak, haur jokoak, liburak, kirol materiala, ispilak, lanparak, alfonbrak, sehaskak, maletak, bizikletak... Atalluko Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera, 10:15-13:00 eta 16:00-19:00. Larunbatetan, 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Taxia (Angel)	607 928 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466
Udaltzaingoa	943 361 112	Eusko Tren	943 470 976
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	LurraldeBus	943 000 117
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Anbulategia	943 362 013
Putzaria - Basetxea	943 361 215	Oa botika	943 376 076
Bake Epaitegia	943 372 336	Iturralde botika	943 363 395
Udarregi Ikastola	943 361 216	DYA	943 464 622
Haur Eskola	943 374 061	Gurutze Gorria	943 272 222
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Emergentziak	112
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
Hastapen tailerrak	943 360 465	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
KZgunea	943 023 684	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Oiarde Kirolegia	943 372 498	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Banco Popular Español	943 370 411
Etumeta AEK Euskaltegia	607 609 379	BBVA	943 377 155
Kaleazar Egunko Zentroa	943 365 249	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Gure Elkartea Zahar Egoitza	943 371 751	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Telefonica	1004
Abere-Landare Babeslea	943 376 650	Euskaltel	900 840 840

Goardiako farmaziak otsailak 14-otsailak 24

Osteguna 14	URBISTONDO	San Franzisko 1 Lasarte
Ostirala 15	GANDARIAS-URIBE	Iñigo de Loyola 9 Lasarte
Larunbata 16	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Igandea 17	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Astelehena 18	ORUE	Pl. Jaizkibel 2 Lasarte
Astearte 19	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Asteazkena 20	RODRIGUEZ	Kale Nagusia 42 Lasarte

Osteguna 21	GIL	Kale Nagusia 24 behe Lasarte
Ostirala 22	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6 Lasarte
Larunbata 23	RODRIGUEZ	Kale Nagusia 42 Lasarte
Igandea 24	RODRIGUEZ	Kale Nagusia 42 Lasarte

* LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00etatik
13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Garikoitz Aldabe. Perkaiztegiakalea 8
(Antziola). Hernani. 943 336 022
22:00 - 09:00

URTE OSOKO EGUTEGIA JASOTZEKO BIDALI FARMA 25600 ZENBAKIRA (1,39 BEZ barne)

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

Agenda otsaila

16 larunbata

- **Gin-kana, Korrikaren alde.** 17:00etan.
- **Kontzertua Usurbilgo gaztetxean.** Sarkor, Tooth eta Mörghead taldeak, 23:00etan.

19 asteartea

- **Gure Pakea txapelketa.** Mus jokoa, 16:00etan Artzabalen.
- **Korrika Batzordea.** Korrika Batzordea, 20:00tan Etumeta euskaltegian.

20 asteazkena

- **Gure Pakea txapelketa.** Toka eta igel jokoa 16:00etan, Artzabal. Sari banaketa, merienda.
- **Korrika Batzordea.** Korrika Batzordea, 20:00tan Etumeta euskaltegian.

Larunbat honetan Sarkor, Tooth eta Mörghead-en kontzertua

Punk-rock estiluan, Sarkor taldekoek 11 kantu jaso dituzte *Mundu kodifikatu en atzean* diskoan. "Koloreetan saltzen diguten mundu happy horren atzean dagoena zuri-bel-tza dela iruditzen zaigulako, guztiz kaotikoa", adierazi zuten disko aurkezpenean. Hau da Gernika-ko taldeak plazaratzen duen hirugarren diskoa. Gaztetxean izango dira larunbat honetan, Tooth eta Mörghead taldeekin batera.

Tooth taldekoak ere Gernikakoak dira. Gaur egun, hirukotea da eta Edortak (gitarra eta ahotsa), Mirrik (baxua eta ahotsa) eta Arzakek (bateria) osatzen dute taldea. Post-hardcore lan-tzen dutela irakurri dugu prentsan.

Mörghead taldeak d-beat punka jorratzen du.



Kontzertua gaueko 23:00etan hasiko da. Argazkian, Tooth taldeko bi kide.

Hiru talde hauek otsailaren 16an larunbata joko dute Usurbilgo Gaztetxean, gaueko 23:00etan hasita.

Berria-ri buruzko erakusketa

Euskaldunon Egunkaria itxi ondoren, Berria egunkaria sortu zeneko 10. urteurrena betetzen da aurten eta hamar panelen bitartez, *Egunkaria* itxi zene-tik gaur egun arteko ibilbidea azaltzen duen erakusketa ipini da Udarregi ikas-tolako erdiko aretoan. Otsailaren 22ra arte egongo da ikusgai.

Kalekumeak erakusketa zabalik

Street photography delako korrontean oinarrituz, Ion Markel Saez de Urabain Iparragirrek 32 argazki jarri ditu ikusgai Donostiako Okendo Kultur Etxean. Mar-txoaren 22ra arte egongo da zabalik. As-telehenetik ostiralera, honako bisita or-duetan: goizez, 10:00-14:00. Arratsal-dez, 16:00-20:30.

Datozenak

Kinto afaria 1956an jaiotakoentzat

Otsailaren 23an larunbata 1956an jaiota-koentzat kinto afaria antolatuta da. Izen ema-tea irekita dago hilaren 20ra arte. Telefono zenbaki hauetara deitu behar da: 627709657 (Mari Kruz) 943370265 (Inaxio).

Ogia egiteko ikastaroa

Otsailaren 23an egingo da ikastaroa, goi-zeke 9:30-14:00 artean Agerialdeko jange-lan. Izena aldeztu aurretik eman behar da (pre-zioa 30 euro). usurbiltzen@gmail.com

Kantu Taldearen deialdi berri bat

Datorren astean, ohiko jira egingo du Kan-tu Taldeak. Hilabeteko azken larunbatetan egin ohi den moduan, arratsaldeko 19:00etan aterako dira kantuan, Mikel Laboa plazatik.



Arratsaldeko 19:00etan aterako dira kantuan, Mikel Laboa plazatik.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

Gasa, berogintza, klimatizazioa, instalazioak eta mantenimendua

Aristitxo 8, behea **943 363 348 - 609 888 021**

 **ARTZABAL**

Baserria - Jatetxea
Puntapax 8, Usurbil
943 36 91 39

**EGUNEKO MENUA
KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK
TOSTAK
MENU BEREZIAK**

PSASUN GIDA 2013

**USURBIL**
OPTIKA

Entzumeneko aparatuak • Igeniekuko tapoiak neumira eginda
BEHERAPENAK eguzkitako betaurrekotan

Zubiaurrenea, 10. • ☎ 943 370 269 • 675 708 654

50€-ko
BALEA

BETAURREKO
PROGRESIBOETAN
(HOYA)

**FISIOTERAPIA ZENTROA**
Ibaiondo

Fisioterapia
Osteopatia
Errehabilitazioa
Masajeak

Ola Kalea, 12 - behea, ezk. LASARTE - ORIA Tel / Faxe: 943 370 306

**Öinutsik**
podologia zentroa
Puntapax 6B, behea ezkerre - Tel. 943 11 09 54

- ✓ Kiropodiak
- ✓ Azterketa biomekanikoak
- ✓ Plantilak
- ✓ Papilomak
- ✓ Erreflexoterapia

**Iturralde botika**
Farmacia Iturralde botika
10012 PEZ

Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua
Dermofarmazia
Produktu homeopatikokoak
Maisu formulak

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95 www.iturraldebotika.com

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Nagusia 10, 1.C4 **943 37 08 78** USURBIL

Gida honetan azaltzeko: 943 36 03 21 publizitatea@noaua.com

TXOTX

!!!

LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA



Urtarriletik maiatzak 5era
TXOTX GARAIA
Hernanitik autobus zerbitzu propioa
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**
Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867



SAIZAR
Betiko Sagardoa



Kalezar Auzoa, 39 • USURBIL • Tel. 943 37 39 95
www.sidrassaizar.com

Txotxetik sagardoa jarraitu usadioa!



%100 bertako sagarra

AIALDE BERRI

Tel: 943 365 031

Santuenca

 **SAGARDOTEGIA**
aginaga

URTE OSOAN
ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA
TXOTXETIK!



Tfno-fax: 943 36 67 10
Aginaga auzea, 20170 USURBIL
info@aginagasagardotegia.com
www.aginagasagardotegia.com